

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozio-ereduak funtziona dezan, oso beharrezkoak diren hainbat ekintza egin behar ditugu. Jarduera hauek ez ditu gure enpresak derrigorrez egin behar, beste kanpoko enpresen esku utz daitezke, baina kontuan hartu behar dugu ekintza batzuk guk pentsatu eta egin beharko ditugula.

SOU S.A.-k hiru ekintza nagusi egingo ditu. Lehenengoa gure produktuaren fabrikazioa izango da, non sortuko dira mahaia, nola eta zein materialekin (materialak naturari lagunduko dituztenak izango dira). Ondoren, enpresaren kudeaketarekin jarraituko dugu eta marketin lanak ere egin beharko ditugu; izan ere, ekintza hauekin gure negozio ereduak lan mundura hurbilduko genuke. Azkenik, I+G+B ekintza egingo dugu, ekintza hau ikerkuntzan, berrikuntzan eta garapenean oinarritzen da. Horretarako, gure produktuaren diseinua berrituko dugu urtero eta ikerketak egingo ditugu gure mahaia ahalik eta autonomia gehiago izan dezaten.